



# SCORE Klima Egokitzapenerako Prestakuntza eskola – Lehen edizioa

2023 Ekainak 6-8  
Online eta tokiko ekitaldiak

*Skills for sustainable,  
resilient, and socially  
fair communities*



3-11 June 2023

#EUGreenWeek  
PARTNER EVENT

## 1. Eguna | 2023 ekainak 6, 12:00-13:30 | Klima-egokitzapenari buruzko online hitzaldia

**12:00** Arriskuak arindu eta jasangarritasuna hobetzea: Kostaldeko erresilientzia klimatikoaren SCORE ikuspegia

**Hizlaria:** SCORE Proiektuaren Koordinatzailea Salem Gharbia | *Hitzaldi hau ingelesez emango da.*

SCORE proiektuaren helburua Europako kostaldeko hirietako erresilientzia klimatikoa hobetzea da, Ekosistemetan Oinarritutako Egokitzapenak (EbA), teknologia adimendunak eta laborategi biziaren (Living Lab) ikuspegia integratuz. *Coastal City Living Lab*-ek (CCLL) interesdun eragileei zientzialari eta ikertzaileekin batera irtenbideak sortzeko aukera ematen die, eta EbA-en eta teknologia adimendunen integrazioak, berriz, arriskuak arintzeko estrategia bateratu eta egokitzalea ematen die. SCORE ikuspegiak ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari mesede egiten die, klimaren eta higaduraren monitorizazioa eta proiektzioa hobetuz, hiritarren konpromisoa handituz, ezagutzen trukea erraztuz, eta arintze-ekintza eta –arrisku ezberdinak aztertuz. COP27-an aurkeztutako politiken laburpenean itsas mailaren igoeraren eta klima-aldaketaren inguruko neurriak hartzeko premia, eta itsas mailaren igoerarekin lotutako arriskuak nabarmentzen dira. Garaipen hirukoitzeko ikuspuntuarekin, SCORE-k etorkizun handiko irtenbidea eskaintzen die klima-aldaketari aurre egiten dioten kostaldeko hiriei.

**12:30** Hiri desberdinetako inpaktu nagusiak eta sentsoreak ezartzeak izan dezakeen eragina identifikatzea

**Hizlariak:** Ignacio Toledo Sepulcre (Alacanteko Unibertsitatea), Mar Riera Spiegelhalder (ENT), Xabier Sesma Korta (Oarsoaldea Garapen Agentzia).

Kostaldeko hiriak arrisku klimatiko jakin batzuekiko oso kalteberak dira, hala nola uholdeak, kostaldeko higadura eta itsas mailaren igoera. Horietako asko areagotu egin dira klima-aldaketaren ondorioz. Sentsoreek espazio eta ekosistema horien bilakaera monitorizatzen eta gertaera kaltegarri batzuei aurrea hartzen laguntzen dute. Hitzaldian, Vilanova i la Geltrú, Oarsoaldea eta Benidormeko CCLL-en klimamehatxu nagusiak aurkeztuko dira, bai eta erabilitako sentsoreak eta SCORE proiektuaren esparruan instalatuko diren beste batzuk ere. Benidormeko kasu praktikoa xehetasun handiagoz jorratuko da; Alacanteko Unibertsitatea eta Benidormeko Udala hiri horretan sentsoreak instalatzeko plan bat lantzen ari dira, kostaldeko ekosistemaren hainbat aldagai monitorizatzeke.

**13:15** Q&A

**13:30** 1. Egunaren amaiera

*Beste hizkuntza batzuetako hitzaldiak ere eskuragarri daude.*

[Izena eman hemen online hitzaldirako](#)

## 2. Eguna | 2023 ekainak 7, 12:00-13:30 | Minecraft online tailerra

### 12:00 Egin bat SCORE Minecraft online tailerrarekin

Tailer honetan, gure etxeak babestu eta etorkizuneko kostaldeko hiriak hobetzeko ingurumenarekiko errespetuzko moduak diseinatuko dituzu! Jokalariak elkarrekin lan egin beharko dute kostaldeko hiri batek jasan beharreko mehatxuei aurre egiteko, ekosistemetan oinarritutako ikuspegiak erabiliz. Minecraft-en jarraibideak ingelesez, italieraz, polonieraz, portugesez, eslovenieraz, gaztelaniaz, euskaraz eta turkieraz egongo dira eskuragarri.

12 urtetik gorakoentzako, baina egokia gazte eta nagusientzat ere!

### 13:30 2. Egunaren amaiera

## Izena eman hemen Minecraft online tailerrerako

## 3. Eguna | Data ezberdinak | Tokiko jarduerak gure Coastal City Living Lab-etan

### Herritarren parte-hartzerako tokiko mailako jarduerak 10 CCLL-etan

Herritarrek parte hartzeko tokiko hainbat jarduera antolatuko dira SCORE-ko 10 Coastal City Living Lab-etan (CCLL), aurrez aurreko ekitaldi, online edo hibrido gisa. Formatua eta edukia CCLL bakoitzak erabakiko ditu, bere lehentasun eta gaitasunen arabera. Adibide batzuk: Sentsoreen Brikolaje Tailerra, SCORE Geodiseinu Joko pilotua, Mapathon Geoinkesta, tokiko ibilaldiak/bisita gidatuak, sentsibilizazio ekitaldiak, erakusketak, elkarten jarduerak, etab.

### Ekainak 5, 12:00 | Vilanova i la Geltrú CCLL

Klima sentsibilizazio ekitaldia ikastetxe eta institutuetako ikasleekin Naturaren Astearen barruan.

### Ekainak 8, 9:30-13:00 | Benidorm CCLL

Proiektua intereseko eragileen artean zabaltzeko jarduera, aurkezpen bat, UA-k EbA eta sentsoreen arloan egindako lanaren deskribapena, eta azkenik, herritarrek sentsibilizatzeko eztabaida bat baliatuz.

### Uztailak 12, 10:30 | Oarsoaldea CCLL

Klima sentsibilizazio ekitaldia Ekosistemetan Oinarritutako Egokitzapenei buruz, aurrez aurreko hitzaldi-tailer formatuan.

*Tokiko jarduerak SCORE-ko beste Coastal City Living Lab-etan ere antolatzen dira*

## GURE HIZLARIAK

**Ignacio Toledo Sepulcre** doktoretza ikaslea da Alacanteko Unibertsitateko (UA) Ingeniaritza Zibileko Saileko Itsasertzeko Ingeniaritza arloan. Ingeniaritza Zibilean graduatua da eta Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza Masterra du Alacanteko Unibertsitatean. Gradu eta Masterreko promozioaren espedienterik onena lortu du. UAK SCORE proiektuan lan egiteko doktoratu aurreko ikertzaile gisa lan egiteko kontratatu du, honako funtzio hauek betetz: muturreko gertaera meteorologikoen eta itsasertzaren bilakaeraren mapaketa GIS bidez, Benidorm hirian garatutako estrategia jasangarrien diseinu eta ezarpenean laguntzea, bilera eta mintegien prestaketan laguntzea eta haietan parte hartzea, eta informazio dokumentalaren prestaketa eta kudeaketa.

**Mar Riera Spiegelhalder** Ekonomista da eta Tokiko Garapenean Masterra egin zuen Valentziako Unibertsitatean. Klima-aldaketaren eta ingurumen-ekonomiaren arloan aholkulari eta ikertzailea ENT Environment & Management erakundearen. SCORE proiektuan, besteak beste, naturan oinarritutako egokitzapen-neurrien azterketa sozioekonomikoak eta eremu horretan bere doktorego-tesia garatzen ditu. Ikerketa eta unibertsitateko irakaskuntza konbinatzen ditu ekonomia zirkularreko graduondoko programetan, garapen jasangarrian eta ekintzailertzan.

**Xabier Sesma Korta** Oarsoaldea eskualdeko Garapen Agentzian Jasangarritasun eta Energia teknikaria da. Ingurumen Zientzietako graduatua Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalean (UNED). Gaur egun, Nekazal-Ingurumen eta Nekazal-elikadura Zientzietan Masterra eta Geografia eta Historian Gradua egiten ari da. SCORE proiektuan, Oarsoaldea CCLL-ko talde nagusiko kide izanik, hainbat zereginetan parte hartzen du: datu eta informazio biltzea, edukia sortzea, intereseko eragileekin komunikatzea, ekitaldiak antolatu eta parte hartzea, etab.